



artilusio

gretaren makina



Ikus-entzule
guztientzako
kale ikuskizuna
objektuen
antzerkia,
ikusizkoa,
testurik gabea.



“ume nintzenean
irakurtzea
atsegin nuen”

GRETA

“**Artilusio**” gauza sinpleekin jolasteko gonbidapena da. Jostailu aktiboek buru pasiboak sortzen dituzte, eta jostailu pasiboek buru aktiboak.



Artilusio

“ilusio
artistikoak”
sortzen dituen
tramankulua da

Imajina dezagun liburuz elikatzen den eta bihotz baten taupaden erritmoan funtzionatzen duen itxura fantastikoko makina handi bat.

Eta tramankulu horren ondoan Greta ikusten dugu...



...adineko emakume maitagarria, liburuz eta ipuinez osatutako liburutegi txikiaren inguruan atzera eta aurrera. Bere adina eta osasun egoera delikatua gorabehera, Greta ustekabekoa, bitxia, apetatsua, fantasia zalea... da. Eta makina, bere liburuen fantasia birsortzeko jostailu handia bezalakoa da, Pina, zaintzailea, bere istorioen eta pertsonaien artean korapilatuz.



Makinak Gretaren gustuaren araberako fantasiako egoerak sortzen ditu... Literaturako pertsonaia misteriotsu eta unibertsalak, Mila eta bat gauetako lanpara zoragarriak, eta munduan zeharreko bidaia fantastikoak. Horiek guztiak ondo pasatzeko eta jolasteko agertokiak dira.



“Artilusio”, bere pertsonaiekin eta bere makinarekin, liburuak eta irakurketak irudikatzen duten horretan zentratzen da:

Lekuz aldatzea,
bidaiatzea,
urruntzea
norberaren barrua
aurkitzeko...



“Artilusio” lanean, liburuekin, objektuekin eta papera edo kartoia bezalako material sinpleekin jolasten dugu, beste esanahi batzuk emateko eta irudimenez betetako egoera harrigarriak sortzeko. Eta, gainera, ikus-entzuleek ere hartzen dute parte eszenen garapenean, hurrekbatez ere. Esperientziagatik, oso hunkigarria izango zaielabadakigun “esperientzia eszeniko” bat proposatuko diegu.



“Artilusio” interpreteen espresibitatearengatik eta, irudi harrigarri eta ezustekoak bilakatzuz objektuekin egiten duten jolas magikoarengatik nabarmentzen da.



Markeliñe

Markeliñek estilo oso pertsonalarekin sortzen ditu ikuskizunak. Ikusgaitasun zaindua, aktorearen keinuak, objektuei eta lengoiaiei buruzko ikerketa... egiteko modu bat osatzen duten elementuak dira. Eta horrekin batera, jatorrizko sorkuntzaren eta garaikidetasunaren aldeko apustu garbia.

Mundua eta bizi dugun denbora konprometitzen duten istorioak sortzen ditugu. Gure unearen eta memoriaren begirada kritikoarekin. Ikus-entzuleak bere gatazkak eta kontraesanak modu eder eta adimentsuan ikustearen plazera senti dezakeen istorioak. Ikus-entzuleak, batzuetan gutxiengoak, unibertsalak, hunkigarriak, poetikoak... diren iradokizunetatik eraikitzen dituen istorioak.

Beste ikuskizun batzuk

- ANDANTE
- KRUSOE
- EURIA-LLUVIA
- CHEF NATURE
- GANBARA
- MAMUT...



Fitxa artistikoa

Izenburua	ARTILUSIO
Egilea	MARKELIÑE
Koordinazioa	Iñaki Egiluz
Antzezleak	Itziar Fragua Fernando Barado Maite Bayón

Musika	Xabier Zeberio eta beste batzuk
Eszenografia	Markeliñe / Marieta Soul
Jantziak	Betitxe Saitua
Teknikaria	Jon Kepa Zumalde
Argazkia-Bideoa	Videostudi Arian Botey

Diseinu grafikoa	Biko Komunikazioa
------------------	-------------------

markeliñe

www.markeline.com

markeline@markeline.com

T. 650 038 731 (Teresa) / T. 605 700 284 (Joserra)

